

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



ROLDAN. ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA

AMAIURKO MONOLITOAREN INAUGURAZIOA

1522an Nafarroako independentziaren alde egin zuten azkenen omenez Amaiurren eraikitako monolitoa Iruñeko udal arkitekto Serapio Esparzak diseinatu zuen eta Martin Zabaleta Berroetako eraikitzaileak egin zuen Almandozko marmol zuriarekin. Hegoaldeko lau probintzietan egindako herri harpidetzak ordaindutako monumentua 1922ko ekainaren 17an entregatu zieten Nafarroako Diputazioko ordezkariak, Martin Elizetxe herriko alkateari eta Nafarroako Monumentuen Batzordeko presidenteorde eta monumentuaren bultzatzaile Julio Altadillik, besteak beste. Urte horretako ekainaren 30ean inauguratu zuten, eta, garai hartako prentsak zioenez, «inaugurazio ekitaldia ahalik eta kristau solemnitaterik eta grina aberkoiarik handienekin jantzi zuten. 11:00etan, kanpai-joaldi gorgarriaren eta suzuriaren etengabeko ez tandem artean, aurretik bandera eta Baztan haraneko udalbatzak eta txistulariak zirela, jendea Amaiurko gaztelua egon zen lekura igo zen». Monolitoa bedekatu eta meza emandakoan, Arturo Campionek haxe esan zion, besteak beste, publikoari: «Nafarroak ez dezala inoiz baztertu gure arbasoek eta haien artean Amaiurko dramako protagonista ausartek hitz egin zuten milaka urteko euskara». Jaia amaitzeko, eta Amaiurko Udalak ekitaldira joandakoei eskainitako bazkariaren ondoren, Udalbatzak «Alkate soinua» dantzatu zuen udaletxearen aurrean, Foruen plazan. Argazkian Arturo Campion, Cruz Goienetxe Amaiurko parrokoa, Manuel Irujo Nafarroako foru diputatua eta Lekarozko komentuko kaputxino hauek: Eusebio de Azpilikueta errektorea, Hilario Olazaran musikaria eta Damaso Elizondo. 1931ko uztailaren 26tik 27ra bitarteko gauean, monolitoa lehertu zuten dinamitaz. Biharamunean, 1931ko uztailaren 27an, Lizarrako merindadeko 64 udalek Euskal Estatutuari baiezkotza eman zioten. Monolitoa 1982ko urriaren 10ean berreraiki eta inauguratu zen Nafarroako, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren sostenguarekin.